

Jose Barquero 'Pitu', Ermuko Futbol Eskolaren sortzailea: "Partiduetan umeei oihu egiten jarraitzen dute gurasoek"

Jose Barquerok 13 urteko esperientzia dauka futbol profesionalean, 2.B mailan, eta beste 4-5 urtekoa 3. mailan. Estatu osoko 16 taldetan jokatu ostean, Futbol Eskola sortu du herrian 35 urteko ermuar honek. Irailean jarri zen martxan eta gaur egun 59 mutiko eta neskatila aritzen dira, 4 eta 11 urte bitartekoak guztiak.

- Urtebete igaro da futbola utzi zenuenetik eta Futbol Eskola martxan duzu jada. Hain erraza da horrelako proiektua abiatzea?

Ez, nik aspaldidanik nuen proiektua buruan eta hasi aurretik pausu asko eman behar izan ditut. Hasteko, eskolan futboleko jokatzen zuten umeen jokabidea aztertu nuen. Ni joan nintzanetik futbolaren bilakaera ikusi nahi nuen. Eta egoera kaskarragoan dagoela ikusi nuen.

- Zein zentzutan?

Oraindik ere gurasoak ez dira konturatzen hain ume gazteentzako lehiaketak ez direla onuragarriak. Nagusien taldeetan dabilten jokalarien jarrera berdinak dituzte eta asteen 2 edo 3 egunetan entrenatzen dute. Hurrengo partida prestatu baino ez dute egiten, entrenamendu horiek umeentzako egokiak diren jakin barik.

- Gurasoek larregi eskatzen diete umeei?

Partiduetan gurasoek umeei oihukatzen jarraitzen dute eta irainak eta berba zatarrak entzuten dira eten-gabe. Ume askok negar egiten dute galtzen dutenean

edo jokatzen ez dutenean... Ez zait batere ondo iruditzen. Adin horrekin umeei disfrutatu behar dute, galdu edo irabazi, jokatu eta ondo pasa behar dute.

- Eta zer ikasten dute Eskola honetan?

4 eta 8 urte bitarteko umeei entrenatu egiten diete bakarrik. Psikomotrizitatea lantzen dugu, kirol-baloerak transmititzen saiatzen gara (talde izaera, esaterako) eta, luzaketak egiten dituzten bitartean, gorputzaren muskuluak zeintzuk diren azaltzen joaten gara apurka-apurka. Teknika oso gutxi lantzen dugu ume hauekin, batzuek baloiari ostikada emateko zailtasunak dituzte-eta!

- Eta nagusiak?

8 urtetik gorakoekin bideratutako kontrolak lantzen ditugu, teknikoki futbol zelaietan non kokatu erakusten diegu... Horiek lehiatu egiten dute, baina ez diogu emaitzari larregi erreparatzen. Umeek ikasitakoa praktikan ipintzen ari diren baloratzen dugu.

- Laguntzarik jaso duzu hau guztia gauzatzeko?



Atlético de Madrideko kirol-zuzendaria laguna dut, nire taldekide izan zelako, eta berak azaldu zizkidan eman beharreko pausuak, momentu batzuetan etsipena sentitu bainuen.

- Traba asko izan dituzu bidean?

Udalak hasieran ezezkota eman zidan, gurasoek ez zutelako ordainduko umeak futboleko aritzeko, eskolatan jokatu zezaketelako, baina guk beste gauza batzuk eskaintzen dizkiegu bai ume zein gurasoei.

- Esaterako?

Banakako kontrola egiten diegu umeei eta hiru hilean behin bilera daukagu gura-

soekin. Umearen bilakaera azaltzen diegu, indarra, teknika eta abiadura neurtzeko grafikoekin, esaterako.

- Eskertzeak ere egoten dira horrelakoetan...

Bai, hasieran nigan konfiantza jarri zuten gurasoei asko zor diet eta baita ni laguntzen egoten diren 5 lagunei ere. Herriko merkataria batzuk ere euren laguntza eskaini didate. Alde txarrak ere badaude: instalazioak nik ordaindu behar ditut eta umeei UKEko bazkide izan behar dute. Baina orokorrean, pozez zorutzen nago eta etorkizunean eskola nire lana izatea nahiko nuke.

Dorleta Vidal

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean